

Ezpalak

JON TORNER

Luis Arellano eta Joaquin Calderon nafarrek egindako *Sahara no se vende* (Sahara ez dago salgai) dokumentala saritu dute Valparaisoko (Txile) Otro Zinema Sozial eta Giza Eskubideen Jaialdian. Jatorrizko Herriak eta Kulturak sailean izan da saritua nafarren dokumentala.

Adrian Tyler, Edward Burtynsky eta Joel Meyerowitz argazkilarien 40 lan daude ikusgai Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean.

Espazioaren eta arkitekturaren arteko harremanaren isla dira argazki horiek. *Eraiki, Bete, Hustu. Espazioaren erabilerak* izeneko erakusketa otsailaren 9a arte izango da zabalik.



Alex de la Iglesia zinema zuzendariaren *The Oxford murders* filma estreinatu zen pasa den astean. Bilbotarraren lan berriak misterioa eta drama ditu ardatz, bere ohiko estiloa alde batera utziz. Protagonistak Elijah Wood eta John Hurt aktoreak dira; filma ingelesez grabatu du lehenengoz Espainian, Frantzia eta Britainia Handian.

Artium museoak Patti Smithen obrak erakutsiko ditu urrian

Gasteizko Artium arte garaikideko zentroak aurtengo jasoko dituen erakusketen berri eman du. Aipagarriena, agian, Patti Smith artista estatubatuarren marrazki, poema eta argazkiak bilduko dituen izango da. Urriaren 30ean jarriko dituzte bere obrak ikusgai. Hainbat erakusketak kolektibok eta Antoni Miralda eta Francesc Torres artisten obrak bilduko dituzten biek osatuko dute, besteak beste, aurtengo egitaraua. Informazio gehiago: www.artium.org.



Fipa jaialdian saritutako saioak Donostian emango dituzte

MIARRITZEKO ikus-entzunezko saioen nazioarteko 21. Fipa jaialdia hilaren 22tik 27ra egingo da. Azken egunean, saritutako lanak Donostiako Tabacalera proiektatuko dituzte. Aurtengo 31 herrialdetako 59 programa lehiatuko dira. Bestalde, Martina Gedeck alemaniar aktoreak jasoko du ohorezko EuroFipa saria. Egitarau osoa: www.fipa.tm.fr.

Bertsoa.com: urtebeteko balantzea

JEXUX MARI IRAZUK duela urtebete jarri zuen abian Bertsoa.com bertso plaza digitala. Orotara 100.000 sarrera baino gehiago izan ditu jada, eta 200 bertso saio inguru sareratu ditu. Emanaldi horietako batzuk zuzenean eskaini ditu Bertsoa.com-ek. Albisteak, elkarrizketak eta agenda ere biltzen ditu webgune horrek, besteak beste.

Joxean Muñoz gidoilariak *Noticias de Gipuzkoan*: «Euskal komikiak komikilari oso onak eman ditu baina aurrera egiteko industria solidoa falta izan zaio. Ohikoa izan da, komikiak agertu eta denbora jakin batera desagertzea. Hau da, ahuldadea. *Ipurbeltz* eta *Xabiroi* izan dira dudarik gabe segida izan duten bakarrak. Euskal komikigintzaren historiari erreparatu gero, *Ipurbeltz*en ezaugarriak azpimarragarriena iraupena izan da. Faktore oso inportantea».

Asier Etxeandiak aktorea *Berrian*: «Hemengo konpainiak ezagutu behar ditugu oraindik, eta haiek bere bidea egiteko aukera izan behar dute. Baina horretarako, Arriaga bezalako antzokiak behar dituzte, antzezlan jakin bat gaizki ater daitekeen arren, horrek sortzen jarraitzeko eta bidea egiteko aukera emango dielako. Euskal kulturari hazteko aukera emango dielako. Baina aukera horren ezean, aktore askok alde egin behar izaten dute. Geldi-

tzen direnek gauzak egiten dituzte, diru laguntzak biltzen batzuetan, baina, hala eta guztiz ere, Arriagan sartzea betidanik izan da oso gauza zaila».

Ramon Reboiras Fnac-eko kultur-ekintzako zuzendariak *Diario Vascon*: «Bai, liburu-dendek best-sellerrak behar dituzte urteko ekitaldia gainditzeko; kontrakoa esaten duenak gezurra dio. Dan Brown, Ken Follet eta Harry Potter ugari».

Txema Blasco aktoreak *Garan*: «Esan didate *Wikipedia*n Espainiako Estatuan film labur gehien egin duen aktorea naizela irakur daitekeela. Nire ordezkariak film labur gehiago ez egiteko esaten dit, baina nola ez ditut ba egingo! Film laburrek sasoi betean egoten eta 'ordaindutako' lan eta lan artean denbora pasatzen laguntzen didate. Zuzendariei beti esan ohi diet nik esperientzia eta beraiek bizitasuna jartzen dutela».

Joare hotsak

Ituren eta Zubietako inauteriak

Inauteria ilargiaren menpekoa da, horregatik ibiltzen da egutegian hara-hona dantzan. Ospakizun batzuek, hala ere, tinko eusten diote data bati. Ituren eta Zubietako inauteria da horietako bat. Urtarrileko azken astelehen eta asteartea dira, urtero, inguruko mendi magalak zintzarri hotsaren oihartzunez betetzeko aukeratutako egunak. Egun aproposak, lanaren diktadurari ihes egiteko modua edukiz gero, aspaldiko ohitura baten magia gozatzeko Euskal Herriko eskualderik ederrenetako batean. Hots, Malerrekan.

Sinonimoen maitaleentzat pagotxa da Ituren eta Zubietako inauteria. Zantzarriak, joaldunak, ttuntturroak, jaia-ren protagonistak izendatzeko; zintzarri esateko, pulunpa eta joare. Zubietan ba omen zen horiek ekoizten zituen oinarritzko metalurgia industria, eta baliteke hori izatea ohituraren jatorria. Iturenak ez du gutxiago izan nahi ordea; joare egile bat gutxienez izan da herri horretan, Mikel Laboari esker ospetsu egin zen kantuari sinestera. Eta sinonimoetara itzulita, abesti horren zenbait bertsiotan Baztanen jatorria duen hitza aipatzen da: garea. Hots, joarea.

Nekazal eta artzain gizarteetan, joare-zintzarri-pulunparen doinua izpiritua txarrak uxatzeko erabili izan da. Baita Zubietan eta Iturenen ere, edo hori da uste zabalduena behinik behin. Hala dio egile ugari, eta urrunago joan gabe, hala irakurri ahal izango duzu esku artean duzun aldizkari honetan, bost orrialde barru.

Juan Antonio Urbeltz adituetan adituenak dioenez, berriz, euliak uxatzea da zintzarrien funtzioa, hala



Iturendar joaldunak. Goiko artileagatik dakigu herri horretakoak direla, Zubietakoak alkandora hutsik joaten dira eta.

nola hisopuarena. Hots, joaldunek eskumako eskuan daramaten zaldi-isatsarena.

Dena prest dago honenbestez. Astelehenean zubietarrak joango dira Iturenera bisitan, bi herrien arteko lau kilometroak betez. Asteartean alderantziz, badaezpada bidean zerbait gelditu den uxatzeke. Bi egunetan, eta bide erdian gutxi gorabehera, Aurtitz auzokoak bilduko zaizkie batzuei nahiz besteei, burrunbari burrunba gehituz. Aurtitzarrek, Iturengoek bezala, bi artilezko atal daramatzate: gerri inguruan jartzen dena, joarea lotzean sokak minik ez emateko —eman egiten du, hala ere—, eta sorbalda gainekoa. Zubietarrek gerrikoa baino ez. Den-denek daramate, hori bai, inauteri-jai honek hain berezko duen kapelu koloretsua.

Hots, ttuntturroa.

UNAI BREA

www.laiaerretegia.com

laia
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com